

AAB-EN ETA SENIDEEN AURKAKO OPERAZIOA



GARI GARAIALDE

Tomas Karrera, Jean Francois Lefort eta Gorka Lopez, Iratxe Sorzabalen argazkiak erakusten, atzo, Donostian egindako agerraldian.

ESANAK

TOMAS KARRERA

(Senideak-Gureak)

«Presoen eskubideen alde egiteko sortu zen elkarte eta horrek kartzelara eraman gaitu»

JEAN FRANCOIS LEFORT

(Koordinaketa)

«Jendeak badaki horrelako operazioak ez dituela justiziak agintzen, Estatu espainiarrak baizik»

EKIMENAK

Batzar Nazionala. Presoen eta Euskal Herriaren aldeko dinamiketan ari direnei Batzar Nazionalerako deia egin zieten atzo AABek eta Senideek, aurrera begirako urratsak aztertzeko. Hernaniko Sandiusterrri zaharren egoitzan izango da batzarra goizeko 11:00etan.

Manifestazioak. Atzo, gaur eta bihar manifestazioak izango dira herrietan. Larunbatean berriz, Baiona, Iruñea, Donostia, Bilbo eta Gasteizen manifestazioak egingo dituzte *Utzi Euskal Herria bakean, Amnistia eta askatasuna* leloarekin.

Beraien lana «ezaguna eta legitimoa» dela azaldu dute AABek eta Senideek

Erakunde horien kontrako operazioa barik, egiten duten lanaren kontrakoa dela esan dute

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Ezker abertzaleko ordezkari ugari bildu ziren atzo eguerdian Donostian, Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta Senideak-Gureak elkartearen aurka eginiko polizi operazioaren balorazioa egiteko prentsurrekoan. Jean Francois Lefort Koordinaketako kidea, Gorka Lopez AABetako eta Tomas Karrera Senideak-Gureak-ekoa mintzatu ziren.

Atzoko sarekada 18/98 sumarioaren baitan kokatzen da, eta Lefortek oroitarazi zuen jada ezker abertzaleko kide eta erakunde ugari daudela suma-

rio horretan. Leforten iritziz, ordea, horrelako operazioek jada ez dute sinesgarritasunik. Gorka Lopezek ere hori nabarmendu zuen. «Horrelako operazioek ez dute sinesgarritasunik, batetik, Entzutegi Nazionalako Laugarren Salak kendu dielako, eta bestetik, euskal gizarteak erakutsi du horrelako operazioetan ez duela sinesten».

Operazioaren jatorria politikoa da Leforten ustez. «Jendeak badaki horrelako operazioak ez dituela justiziak agintzen, Espainiako estatuak agindutakoa da». Prozesu hauek ez direla ohikoak erantsi zuen Lopezek,

«ez dago delitu konkreturik, akusazio generiko bat baizik, kolektibo baten aurka».

Aurrera jarraitzeko asmoa

Erakunde jakin batzuen aurka barik, erakunde horien jardueraren aurkakoak izan direla atxilotetak iritzi diote. «Guk egiten dugun lanagatik egin digute eraso. Eta gure lana publikoa, ezaguna eta legitimoa da, sakabanaketa salatzea, presoen eskubideak defenditzea, eta ideia legitimoak defenditzea. Hori guztia ez dator bat erakunde armatuko kide izatearekin», adierazi zuen Lopezek. Azke-

nik, orain arteko lana egiten jarraituko dutela adierazi zuten.

Tomas Karrerak, berriz, oroitarazi zuen Senideak-Gureak elkartearen izatea zein den. «Gure elkarte sortu zen gure familiarron eskubideak defenditzeko, eta konpromiso horrek kartzelara eraman gaitu». Amnistiaren aldeko mugimenduak sufrimendua amaitzea nahi duela adierazi zuen. Aldiz, Espainiako estatuak «gerra apustua» egiten du behin eta berriz. Kortsikan edo Irlandan gertatzen ari dena adibidetzat jarritz esan zuen, «han aurrerapausoak ematen ari dira, eta hemen

kontrako norabidea egiten ari da». Euskal gizartean presoen alde metatutako indarraren garapena oztopatu nahi izan zuten atxilotekin Karreraren iritziz, baina lanean jarraituko dutela berretsi zuen.

Agerraldian izan ziren Bata-sunako Arnaldo Otegi eta Joseba Permach, LABeko Rafa Diez, Segiko Araitx Zubimendi, zenbait abokatu eta AABetako eta Senideak-Gureak-eko kideak besteak beste.

Euskal preso, errefuxiatu eta deportatuak diruz sostengatzea egotzi die Raxoik AABei

Agentziak | MADRID

Euskal preso, errefuxiatu eta deportatuak ekonomikoki sostengatzea egotzi zien atzo Mariano Raxoi Barne ministroak Amnistiaren Aldeko Batzordei. «Finantzabide lanak egiten ditu, ez bakarrik preso eta euren senideen bidaiena, baita ihesean eta beste herrialdeetan deportatuak dauden pertsonena ere. Horiek Espainian auziak irekita dituzte eta hori delitua da».

«Euskal presoen eta talde

terroristaren Frantziako buruzagitzaren arteko bitartekari lanak egitea» ere leporatu zion taldeari. Raxoien ustez, AABek «ETAren presoen kolektiboaren diziplinaz arduratzen dira, beraien arteko barne eza-dostasunak, eta bide batez, bergizarteratzea eragozteko».

Barne ministroak gaineratu zuenez, AABek «ETAren jardueraren osagarri diren borroka motak koordinatu eta sustatzen ditu, presoen aldeko mobilizazioak eta etakideen aldeko borroka egunak». Pre-

soen egoeraren arduradunak «seinalatzea» leporatu zien Raxoik AABei, «gero ETAren helburu bilakatzeko».

Senideak-en diru laguntza

Eusko Jaurlaritzak Senideak elkarteari azken hiru urteetan emandako 22,7 milioi pezeta-ko diru laguntzaz hitz egin zuen Raxoik. Haren aburuz, «ulertezina da diru-laguntzak ematea espetxean amaituko duten pertsonen laguntza horiek erabiltzen dituzte ETAk bizitzan jarraitzeko eta gero



RAMON CASTRO / EFE

Mariano Raxoi.

MARIANO RAXOI

Espainiako Barne ministroa

«Ulertezina da Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak ematea espetxean amaituko duten pertsonen laguntza»

atxilotu egin behar zaie legearen aurka aritzeagatik». Raxoik «harrigarritzat» jo zuen diru hori «giza eskubideen babesarako jarduerari ematea».

Gogoratu zuenez, AABei prozedura administratiboak ireki dizkiete legez kanpo elkarretaratzeak egiteagatik.